


ALDIZKARIKO IRAKURLEEK IRITZIA EMAN DUTE



Irakurleek GEHIENGO OSOZ GOMENDATZEN dute gure aldizkaria eta, gainera, puntuazio handiarekin


Astigarraga aldizkaria hobetzeko inkesta martxan jarri dugu maiatzaren bigarren hamabostaldian. Inkestak dituen zortzi galderen inguruko **erantzunak eman dituzten 65 herritarren balorazioak eta emaitzak** bildu ditugu ondorengo lerroetan.

PARTAIDEEN DATUAK:

Sexua: Parte hartutakoak 65 pertsona izan dira. Emakumezkoak erdia baino gehiago izan dira 35 (% 54) eta gizonezkoak 29 (% 44).


Adina: Partaide gehienak 41-65 urte artekoak izan dira, alegia, 34 (% 52). Ondoren 26-40 tartekoak: 22 (% 34).

Ogibidea: Erantzuna eman dutenen % 78 langileak dira. Ikasleak eta erretiratuak parekoak izan dira %10na.




ALDIZKARIA EZAGUTZEA:


Aldizkaria aspalditik ezagutzen dute parte hartutakoek. Izan ere, %78k, alegia 51 pertsonak, orain dela 6 urte baino gehiagotik ezagutzen dute, aldizkaria. Eta % 18,5ek azken hiru urteetan ezagutu dute.




ATALIK GUSTUKOENAK




ARLOEN BALORAZIOA



GURE WEBGUNEA EZAGUTZEA:



ALDAKETAK EDO HOBEKUNTZAK:



BESTE EKARPENAK:

- Herrian piztuta dauden eztabaidak jaso behar dira: pandemiaz, sagardoetxeaz...

- Diseinuan hobekuntza nabarmenak egin dira, baina ahalegindu behar da beti hobetzen.

- Hurrei zuzendutako testuak lagungarri izango liriteke beraien heziketa prozesuan, baita gazteengan interesa sortuko dituzten artikuluak ere.

- Herriko elkarte bakoitzak bere ekarpena egitea aproposa ikusten da.

- Ez da iradokizuna, baina asko eskertzen da sarean ale guztiak eskuragarri edukitzea.

- Ekimen herriko oso baliagarria da aldizkaria, eskertzekoa da egiten den lana herriko herriarentzat. Jarraitu horrela!